DEBAKO UDALA

# UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

## ACTA del PLENO MUNICIPAL

| | |
|---|---|
| BILERA ZK.: 2022/02 | SESIÓN Nº: 2022/02 |
| EGUNA: 2022/02/22 | DÍA: 24/02/2022 |
| HASIERA ORDUA: 19:00 | HORA DE INICIO: 19:00 |
| AMAIERA ORDUA: 19:40 | HORA DE FINALIZACIÓN: 19:40 |
| TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa | LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento |
| **BERTARATUAK:** | **ASISTENTES:** |
| Gilen Garcia Boyra, **alkatea** | Gilen Garcia Boyra, **alcalde** |
| **EH Bildu udal taldea** | **Grupo municipal EH Bildu** |
| Itziar Irizar Beristain | Itziar Irizar Beristain |
| Aritz Larrañaga Unanue | Aritz Larrañaga Unanue |
| Antxon Etxeberria Larrea | Antxon Etxeberria Larrea |
| Nerea Arrizabalaga Badiola | Nerea Arrizabalaga Badiola |
| Antxoka Elorza Altuna | Antxoka Elorza Altuna |
| **Debarren Ahotsa udal taldea** | **Grupo municipal Debarren Ahotsa** |
| Pedro Bengoetxea Loiola | Pedro Bengoetxea Loiola |
| Isidor Lamariano Arostegi | Isidor Lamariano Arostegi |
| Ane Egidazu Elosua | Ane Egidazu Elosua |
| Enrique Salgado Alcorta | Enrique Salgado Alcorta |
| **EAJ-PNV udal taldea** | **Grupo municipal EAJ-PNV** |
| Iñigo Cambronero Alkorta | Iñigo Cambronero Alkorta |
| Eneritz Gómez Lázaro | Eneritz Gómez Lázaro |
| Miren Esnal Laskibar | Miren Esnal Laskibar |
| **Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra | **Secretario:** Jose Luis Salaberri Iñarra |

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

**Gilen Garcia:** Arratsalde on eta ongi etorri denoi.

Besterik gabe, gaurko bileraren lehen aztergaiarekin hasiko gara.

## 1.- AURREKO BILKUREI (2021/12/21 ETA 2022/01/27) DAGOZKIEN AKTA ZIRRIBORROAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

**Pedro Bengoetxea:** Bakarrik jakiteko. Orain aktak beste formatu bat dute. Egiten dugun hizkuntzaren arabera jaso behar al dira aktak?

**Jose Luis Salaberri:** Ez nire errua izan da, ez baitut denborarik izan itzulpenak egiteko. Itzuliko ditut aktak eta bidaliko dizkizuet betiko formatuan.

**Gilen Garcia:** Besterik? Ez? Onartu egiten dira aktak.

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu 2021eko abenduaren 21ean eta 2022ko urtarrilaren 27an eginiko osoko bilkurei dagozkien aktak.

## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

**Gilen Garcia:** Zuena da hitza.

**Iñigo Cambronero:** Jakitearren, besterik gabe. Alkatetzaren hiru dekretu daude, 34, 35 eta 36, *«Ondare erantzukizuna. Kalean erortzeagatik erreklamazioa: 10 eguneko epea ebaluazio ekonomikoari buruzko agiriak aurkezteko»*. Ea azalpen bat eman diezagukezuen, zertan dautza? Zer gertatu da?

**Gilen Garcia:** Istripu bat egon zen kalean, eta horrekin prozedura bat irekitzen da. Dekretu bakoitza, 34an esaten den bezala, «*kalean erortzeagatik ondare erantzukizuna»* eta ematen zaie hamar eguneko epea ebaluazio

## TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

**Gilen Garcia:** Buenas tardes y bienvenidos y bienvenidas.

Sin más, comenzamos con el primer punto del orden del día.

## 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES (21/12/2021 Y 27/01/2022).

**Gilen Garcia:** ¿Hay alguna aportación o sugerencia?

**Pedro Bengoetxea:** Sólo por saber. Ahora las actas tienen otro formato. ¿Las actas se van a hacer en función del idioma que utilicemos?

**Jose Luis Salaberri:** No, ha sido culpa mía, no he tenido tiempo de hacer traducciones. Traduciré las actas y os las enviaré en el formato de siempre.

**Gilen Garcia:** ¿Algo más? ¿No? Se aprueban las actas.

El Pleno, por unanimidad aprueba las actas correspondientes a las sesiones plenarias celebradas los días 21 de diciembre de 2021 y 27 de enero de 2022.

## 2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

**Gilen Garcia:** Tenéis la palabra.

**Iñigo Cambronero:** Simplemente por saber. Hay tres Decretos de Alcaldía, 34, 35 y 36, que hacen referencia a *«Ondare erantzukizuna. Kalean erortzeagatik erreklamazioa: 10 eguneko epea ebaluazio ekonomikoari buruzko nahitaezko agiriak aurkezteko»*. A ver si podéis darnos una explicación, ¿en qué consisten? ¿qué es lo que ha pasado?

**Gilen Garcia:** Hubo un accidente en la calle, y con ello, se abre un procedimiento, como se dice en el 34, *"Responsabilidad patrimonial por caída en la calle"*, y se les concede un plazo de diez días para presentar la

ekonomikoari buruzko nahitaezko agiriak aurkezteko.

Besteetan, ez dakit zeregatik den aipamen bera.

**Jose Luis Salaberri:** Espediente desberdinak dira. Hor eduki genuen bost erreklamazio eta lauri dokumentazioa falta zitzaien eta bidali zaie errekerimendu bana osatu ditzaten. Bosgarrenari, Itziarren arbola baten adarra erori zitzaiola kotxe gainean eta kalte ordaina eskatu zuen. Horri ezezkoa esan zaio han aparkatzea debekatuta dagoelako eta, gainera, egun horretan haizeagatik alarma aktibatuta zegoelako.

**Miren Esnal:** Nola hirurak berdinak direnez, ba zalantza genuen.

**Jose Luis Salaberri:** Bai, zerrendan agertzen den testua berdina da, baina espediente desberdinak dira.

**Gilen Garcia:** Hau da, ulertu behar da enuntziatu bera duten Dekretuak, espediente desberdinei erantzuten dietela.

**Jose Luis Salaberri:** Bai, ondoko zutabean fijatzen bazarete, desberdinak dira espediente guztiak.

**Iñigo Cambronero:** Gero beste bat, 55. *«Bordatxo jatetxearen sukaldeko keak eta gasak husteko hodia aldatzeko baimena ukatzea jarduera lizentzia izapidetu gabe dagoelako.»* Hirigintza Batzordekoa da, eta ez daukagu horren berririk. Ea argitu dezakezun.

**Gilen Garcia:** Obra lizentzia eskatu zuten, baina jarduera lizentzia ez dago eguneratuta. Gaur bertan izan dugu bilera bat jabeekin eta bere lege-aholkulariarekin, eta azaldu zaie zein den prozedura. Asuntoa da jarduera ez zegoela egunean eta, horregatik, ezin zaie obra baimenik eman.

documentación preceptiva sobre la evaluación económica.

En los otros, no sé por qué la mención es la misma.

**Jose Luis Salaberri:** Son expedientes diferentes. Hubo cinco reclamaciones y a cuatro les faltaba documentación y se les han enviado sendos requerimientos para que la completen. Al quinto, en Itziar se le cayó la rama de un árbol sobre el coche y pidió una indemnización. A ese se le ha denegado porque allí está prohibido aparcar y, además, ese día estaba activada la alarma por el viento.

**Miren Esnal:** Como los tres son iguales, nos han suscitado dudas.

**Jose Luis Salaberri:** Si, el texto que aparece en la lista es el mismo, pero son expedientes diferentes.

**Gilen Garcia:** Es decir, hay que entender que los Decretos con el mismo enunciado responden a diferentes expedientes.

**Jose Luis Salaberri:** Si, si os fijáis en la siguiente columna, todos los expedientes son diferentes.

**Iñigo Cambronero:** Luego otro, el 55, *«Bordatxo jatetxearen sukaldeko keak eta gasak husteko hodia aldatzeko baimena ukatzea jarduera lizentzia izapidetu gabe dagoelako.»* Es de la Comisión de Urbanismo, y no tenemos ninguna información al respecto. A ver si puedes aclararlo.

**Gilen Garcia:** Solicitaron licencia de obra, pero la licencia de actividad no está al día. Hoy mismo hemos tenido una reunión con los propietarios y su asesor legal, y se les ha explicado cuál es el procedimiento. El caso es que la actividad no estaba al día y por ello no se les puede conceder licencia de obra.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

El Pleno queda enterado.

## 3.- DEBEGESA BITARTEKO PROPIO DEKLARATZEA SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN ONDORIOETARAKO.

**Gilen Garcia:** Eskari hau behin baino gehiagotan egin izan digu Debegesak. Udalaren ikuspuntutik ere, badira hainbat proiektu, besteak beste, Historiaurreko bailarena, eta abar, eta askotan kontratu horiek emateko orduan ikusi izan da gabezia bat, integraltasun handiagoa behar delako proiektu horiek gauzatzeko. Esaterako, Historiaurreko bailara proiektuan, behar dira, musealizazioa, estetika zehatz bat, arkitektura jakin bat, legearen ezagutza, promozio ekonomikoa, nola egin behar den, eta abar, eta ezagutza horiek guztiak, Debegesak baditu.

Ikusita Debegesa dela erakunde publiko bat, Udalena dena, hau da Udalek hornitzen dugu gure aurrekontuekin, eta ulertzen da horren erretornoa, bai lana sortzeko, industria garapena emateko, turismoan bidelagun izateko, beste kontuetan bidelagun badena, ba bitarteko propioa izendatuta, automatikoki, modu zuzenean eskatu ahal zaie, noski, aurrekontuak eskatu behar direla eta abar, baina, aukera emango luke Debegesa Udalaren zerbitzu zuzen gisa funtzionatzeko. Orduan identifikatzen dugu onura bat bezala.

Bere garaian, legegintzaldiaren hasieran, berriro ere proposamena luzatu ziguten Debegesako administrazio kontseiluan, eta kasu honetan, eta berriro ere Historiaurreko bailara proiektuarekin lotuta, ikusten zen bazela proiektua interesgarri bat Debegesak egiteko, beraiek lagundu digutelako prozesu guztian zehar, eta ikusten genuen erabaki honekin erraztu egiten dela prozesu hori, eta horretara dator proposamen hau.

Ba al dago ekarpenik edo? Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Debegesa

## 3.- DECLARACIÓN DE DEBEGESA COMO MEDIO PROPIO A LOS EFECTOS DE LA LEY DE CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO.

**Gilen Garcia:** Esta es una petición que nos la ha hecho Debegesa en más de una ocasión. Desde el punto de vista del Ayuntamiento hay proyectos como el de Historiaurreko bailara, etc., en los que muchas veces se ha visto una carencia a la hora de adjudicar estos contratos porque se necesita una visión más integral para llevar a cabo estos proyectos. Por ejemplo, el proyecto de Historiaurreko bailara, la musealización, una estética concreta, las obras de arquitectura, el conocimiento de la ley, la promoción económica, etc.

Visto que Debegesa es un ente público que pertenece a los Ayuntamientos, es decir, lo dotamos con nuestros presupuestos, se entiende que debe ser un compañero de viaje tanto para crear empleo, como para el desarrollo industrial y el turismo, cómo es compañero de viaje en otras cuestiones, pues con la designación como medio propio, automáticamente, se les puede solicitar directamente, claro que hay que pedir presupuestos, etcétera, pero, permitiría que Debegesa funcionase como servicio propio del Ayuntamiento. Así, lo identificamos como algo beneficioso.

En su momento, al inicio de la legislatura, se nos volvió a plantear la propuesta en el Consejo de Administración de Debegesa, y en este caso, y de nuevo en relación con el proyecto Historiaurreko bailara, se veía que era un proyecto interesante para que lo elaborarán desde Debegesa, que nos ha ayudado a lo largo de todo el proceso, y veíamos que con esta decisión se simplifica ese proceso, y a eso responde esta propuesta.

¿Hay alguna aportación? ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la

bitarteko propio deklaratzea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako.

declaración de Debegesa como medio propio a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público.

## 4.- 2022KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

**Gilen Garcia:** Itziar, zurea da hitza.

**Itziar Irizar:** Justu atzo egin genuen Ogasuneko Batzordea, eta normalean ordenantza fiskalak aurreko urteko udazkenean onartzen dira, eta 2022koak aurreko irailean onartu genituen, baina egin ditugu aldaketa txiki batzuk. Alde batetik, aparkalekuen araudia urtarrilean onartu genuen behin behinean, eta hor jaso ziren aldaketak ordenantza fiskaletara eraman dira. Ez dira aldaketa oso nabarmenak, baina ordenantza fiskala eguneratu egin behar da. Eta, bestetik, hilerri berriaren tasak aurreko udazkenean onartutako ordenantzatan jaso ziren, baina, ekitaldi aretoaren erabileraren tasa falta zen, eta hori gehitu egin da.

Beste aldaketa bat da elkarte gastronomikoen zabor tasa. Kasu honetan bereizi egiten zen 25 bazkide arteko elkarteak, oso gutxi direnak, eta hortik gorakoak, eta hor egin dena da sailkapena hiru tartetan zatitu da, proportzionalagoa izateko bazkideen kopuruarekin.

Eta, azkenik, Udal jabari publikoa erabileraren ordenantzan, feria eta herri jaietako postuen epigrafean, sartu dugu beste puntu berri bat, eskola eta kirol materialaren alokairuen okupazioarena. Orain arte, okupazioa lotu izan da, batez ere, obrekin (aldamioak, kontenedoreak, eta abar) eta desberdindu

## 4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA 2022.

**Gilen Garcia:** Itziar, tienes la palabra.

**Itziar Irizar:** Justo ayer tuvimos sesión de la Comisión de Hacienda, y aunque normalmente las ordenanzas fiscales se aprueban en otoño del año anterior, y las de 2022 las aprobamos en septiembre pasado, hemos hecho algunas pequeñas modificaciones. Por un lado, la regulación de los aparcamientos, la aprobamos provisionalmente en enero y las modificaciones que se recogían en la ordenanza, se han trasladado a las ordenanzas fiscales. No son cambios muy destacados, pero hay que actualizar la ordenanza fiscal. Y, por otro lado, las tasas del nuevo cementerio se recogieron en las ordenanzas aprobadas el pasado otoño, pero faltaba la tasa de utilización del salón de actos, que se ha añadido.

Otra modificación es la tasa de basura de las sociedades gastronómicas. En este caso se diferenciaba entre sociedades de hasta 25 socios, que son muy escasas, y sociedades de más socios. Aquí la clasificación se ha dividido en tres tramos para que sea más proporcional con el número de socios.

Y, por último, en la ordenanza de uso del dominio público municipal, en el epígrafe de puestos de ferias y fiestas populares, se ha añadido un nuevo punto relativo al alquiler de material escolar y deportivo. Hasta ahora, la ocupación se ha asociado fundamentalmente a obras (andamios,

egin dugu obren okupazioa eta eskola eta kirol materialaren alokairuen okupazioa.

contenedores, etc.) y se ha diferenciado entre ocupación de obras y ocupación de alquileres de material escolar y deportivo.

Lau puntu horiek dira aldatzen direnak, aldaketa nabarmenik gabe, baina horrela guztiz eguneratuta gelditzen dira ordenantza fiskalak.

Estos cuatro puntos son los que se modifican, sin cambios sustanciales, pero así las ordenanzas fiscales quedan totalmente actualizadas.

Dudaren bat edo baduzue?

¿Tenéis alguna duda?

**Gilen Garcia:** Bozkatu egingo dugu orduan. Aldeko bozkak? Aho batez.

**Gilen Garcia:** Entonces votaremos. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2022ko ordenantza fiskalen aldaketa, Finantza, Ondasun eta Kontuen Batzordearen 2022ko otsailaren 23ko irizpenean jasotako moduan.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la modificación de las Ordenanzas fiscales de 2022, en los términos recogidos en el dictamen de la Comisión de Hacienda, Patrimonio y especial de Cuentas de 23 de febrero de 2022.

## 5.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

## 5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.

**Gilen Garcia:** Aritz, zurea da hitza.

**Gilen Garcia:** Aritz, tienes la palabra.

**Aritz Larrañaga:** Gai honi buruz esan behar da, baditugula lanpostuen zerrendan gai bat baino gehiago eguneratzeko, baina ikusita Udalaren administrari laguntzaileen artean desberdintasunak direla, aldaketa puntual hau horretara dago zuzenduta eta administrari laguntzaileen artean, lanaren funtzioak eta balorazioa zuzentzea du helburua. Aurrerantzean lanpostu guztien balorazioa egin beharko bada ere, orain egokia ikusi da administrari laguntzaileen lanpostuen soldata eta osagarriak parekatzea.

**Aritz Larrañaga:** Sobre este tema hay que decir que tenemos varios temas para actualizar en la relación de puesto de trabajo, pero a la vista de las diferencias entre el personal auxiliar administrativo del Ayuntamiento, este cambio puntual está dirigido a ello y tiene como objetivo corregir las funciones y la valoración del trabajo del personal auxiliar administrativo. Si bien en adelante será necesario realizar una valoración de todos los puestos, ahora se ha considerado oportuno equiparar el sueldo y los complementos de los puestos de auxiliar administrativo.

Hau litzateke asmoa, eta hurrengoan ere lanean jarraitzea lanpostuen zerrendan beste aldaketa eta egokitzapen batzuk egitea.

Este es el propósito, y en lo sucesivo continuar trabajando para realizar otras modificaciones y adaptaciones en la relación de puesto de trabajo.

Proposamen hau mahai negoziatzailean sindikatuekin negoziatu zen, eta adostasuna lortu zen. Barne Erregimeneko eta Pertsonaleko Batzordean ere aho batez onartu zen, eta, orain, Osoko Bilkurak onartzen badu, ba aurrera eramango dugu.

Esta propuesta se ha negoció con los sindicatos en la mesa de negociación, y se llegó a un acuerdo. También fue aprobada por unanimidad en la Comisión de Régimen Interior y Personal y, ahora, si el Pleno la aprueba, la llevaremos a cabo.

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik? Aldeko

**Gilen Garcia:** ¿Hay alguna aportación? ¿Votos a

bozkak? Aho batez.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du lanpostuen zerrendaren aldaketa puntuala.

favor? Por unanimidad..

El Pleno, por unanimidad, aprueba la modificación puntual de la relación de puestos de trabajo.

## 6.- ITZIARKO ENTITATE TXIKIAREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREKIN AURRERA JARRAITZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

**Gilen Garcia:** Azken osoko bilkuran, eskari eta galderetan, galde egin zitzaigun ea zer erabaki hartu behar genuen gai honetaz. Horren harira esan genuen interesgarriena litzatekeela gai hori Itziarko Batzordean lantzea. Horrela egin genuen. Itziarren batu ginen otsailaren 10ean, azaldu genuen espedientearen nondik norakoak, zer puntuan gauden gaur egun, eta alde guztiek ikusi genuen espedientearekin jarraitzea ala bertan behera uztea erabaki behar zela, azkenean urte askotan baldintzatu gaituen gaia izan delako, eta horretan gaude gaur hemen.

Aurrera jarraitu baino lehen, ikusten duzuen bezala, bi aukera aipatzen dira hemen: aurrera jarraitzea edo bertan behera uztea onartzea. Horrela, gaizki ulertuan egon ez daitezen bi bozketa egingo ditugu. Lehenbizi aurrera jarraitzea bozkatuko dugu, aldeko bozkak, abstentzioak eta kontrako bozkak; eta ondoren bertan behera uztea bozkatuko dugu, prozedura berdinarekin.

Zuena da hitza.

**Pedro Bengoetxea:** Guk arrazoiak emango ditugu Debarren Ahotsak zergatik jarraitu eta berretsi nahi duen Itziarko toki entitate txikiaren aldaketarekin.

*«Toki entitate txikia aldatzeari buruz*

## 6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CONTINUACIÓN O EL ARCHIVO DEL EXPEDIENTE DE LA MODIFICACIÓN DE LA ENTIDAD LOCAL MENOR DE ITZIAR.

**Gilen Garcia:** En la última sesión plenaria, en el apartado de ruegos y preguntas, se nos preguntó sobre los acuerdos a adoptar sobre este tema. En este sentido dijimos que lo más interesante sería tratar este tema en la Comisión de Itziar. Así lo hicimos. Nos reunimos el 10 de febrero en Itziar, se expusieron los pormenores del expediente, el punto en el que nos encontramos, y todas las partes vimos la necesidad de adoptar un acuerdo sobre la continuación o el archivo del expediente, ya que ha sido un tema que al final nos ha condicionado durante muchos años, y en eso estamos hoy aquí.

Antes de continuar, como veis, aquí se mencionan dos opciones: continuar adelante con el expediente o aprobar su archivo. De esta manera, para evitar malentendidos, realizaremos dos votaciones. Votaremos primero sobre la continuación del expediente, votos a favor, abstenciones y votos en contra; y después votaremos sobre el archivo del expediente, por el mismo procedimiento.

Tenéis la palabra.

**Pedro Bengoetxea:** Nosotros vamos a dar las razones por las cuales Debarren Ahotsa desea seguir y ratificar la modificación de la entidad local menor de Itziar.

*«Ratificación del acuerdo adoptado sobre la*

*hartutako erabakia berrestea.*

*modificación de la entidad local menor.*

*Debarren Ahotsaren ustez, berretsi egin behar da 2019ko martxoaren 26ko Osoko Bilkuran gehiengoz onartutako akordioa, Itziarko toki-entitate txikiaren lurralde-eremua eta ondarea aldatzen dituena, eta, aurrekoaren ondorioz, horren ondoriozko aurrekontu-esleipenak.*

*Desde Debarren Ahotsa entendemos que debe ser ratificado el acuerdo aprobado por mayoría en el Pleno de 26 de marzo de 2019, que modifica el ámbito territorial de la entidad local menor de Itziar, el patrimonio y, como consecuencia de lo anterior, las asignaciones presupuestarias que de ello se deriven.*

*Aurrekariak.*

*Antecedentes.*

*Urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuak, Itziarko toki entitate txikia eratzen duenak, nahiz eta txikia deitzen dion, udal lurraldearen %92,50 esleitzen dio. Mugak Debako hirigunetik 500 metrora ere hurbiltzen direla, eta, bere baitan, 800.000 metro koadroko industrialdea bat hartzen duena.*

*El Decreto Foral 3/2015, de 27 de enero, que constituye la entidad local menor de Itziar establece un ámbito territorial para ella, a la que denomina menor, del 92,50 % del territorio municipal Sus límites se acercan incluso hasta 500 metros del núcleo urbano de Deba, e incluye en su interior un polígono industrial de cerca de 800.000 metros cuadrados.*

*Aipatu toki entitate txikia berezko eskumen zabalekin eta delegatzeko eskumenekin eratu zen, bikoiztasunak eragiten zituen antolaketa administratiboarekin, eta zuzenean kontratatutako langile propioak izateko aukerarekin.*

*La mencionada entidad local menor se constituyó con amplias competencias propias y a delegar, y con una organización administrativa que originaba duplicidades y que contempla personal propio directamente contratado.*

*Aldaketaren arrazoiak.*

*Motivos de la modificación.*

*Debarren Ahotsak funtsezko desadostasuna du eraketari buruz, ez baita batere zentzuzkoa, Deba moduko 5.500 biztanleko herri txiki baten barruan, erakunde berriak udal baten antza izatea.*

*Debarren Ahotsa tiene una discrepancia fundamental sobre la constitución, ya que es algo poco lógico que el nuevo ente se aproxime a un municipio, dentro de un pequeño pueblo de 5.500 habitantes, como es Deba.*

*Toki entitate txikiaren eraketak, bere helburu nagusia dela administrazioaren zerbitzuak hurbilagoak eta erosoagoak izatea inguruko biztanleentzat, ez du justifikatzen erakunde horri lurraldearen %92,5 esleitzea, ez eta horri industrialde bakarra esleitzea ere. Industrialde hori interes estrategikotzat jotzen denean udalerri osorako eta eskualderako, eta, beraz, udalerriko biztanle guztien interesak ordezkatzen dituenak kudeatu behar du, hau da, Udalak.*

*La creación de la entidad local menor, cuyo objetivo principal es que los servicios de la administración resulten más próximos y más cómodos para la población del entorno, no justifica la asignación a ésta del 92,5 % del territorio, ni la asignación a ella del único polígono industrial, considerado de interés estratégico para todo el municipio y para la comarca, y que, por lo tanto, debe ser gestionado de forma integral por quien representa los intereses de todos los habitantes del municipio, que es el Ayuntamiento de Deba.*

*Udalak eskumen osoa izan behar du herrigune nagusiaren inguruko lurraldea zabaltasunez kudeatzeko. Beharrezkoa da gure Udalak hirigunetik hurbil dauden lurzoruei buruzko eskumen guztiak bere gain edukitzea. Lurzoru horiek bakarrik baitira egokiak, beren*

*El Ayuntamiento debe tener la competencia total para gestionar el territorio que rodea el núcleo urbano principal con amplitud. Es necesario que nuestro Ayuntamiento mantenga todas las competencias sobre los suelos cercanos al núcleo urbano en su parte*

DEBAKO UDALA

*ezaugarri fisikoengatik, herriaren epe ertain eta luzerako garapenerako.*

*alta, únicos suelos que son aptos, por sus características físicas, para su desarrollo a medio y largo plazo.*

*Toki entitate txikiaren eskumen batzuk kudeatzeko modua aldatu egin behar da, giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak partekatu eta optimizatzeko, eta beti urriak diren baliabideen kudeaketa arrazionala lortzeko.*

*El modo de gestión de algunas competencias de la entidad local menor debe modificarse con objeto de compartir y optimizar recursos humanos, económicos y materiales, y conseguir una gestión racional de las disponibilidades siempre escasas.*

*Itziarko eta landa-auzoetako biztanleek badute autogestio-borondate nabari bat, Debarren Ahotsaren ustez, gauzatu egin behar dena, baina, betiere, udalerriaren interes orokorrei kalterik egin gabe, 2/2003 Foru Arauaren 28. artikuluak eskatzen duen bezala.*

*Existe, si, una voluntad manifiesta de autogestión de los habitantes de Itziar y de los barrios rurales, que Debarren Ahotsa opina que debe ser materializada, pero siempre con la inexistencia de perjuicios para los intereses generales del municipio, tal y como exige el artículo 28 de la Norma Foral 2/2003.*

*Debarren Ahotsak uste du Itziarren zentroa duen eta udalerriaren % 92,5 hartzen duen toki entitate txikiaren ereduak kalteak eragiten dizkiela interes orokor horiei, eta beharrezkoa dela duen toki entitate txikiaren eredu desberdin bat, non biztanleriaren zati baten nahiek beste zati handi baten nahiak ere muga izango dituzten. Hori dela eta, onartutako aldaketak toki entitate txikiaren azalera % 80,9an kokatzen du, eta % 19,10ean Debarako, "Itziarko duen toki entitate txikiaren aldaketa justifikatzen duen txostena" dokumentuan jasotzen den bezala.*

*Debarren Ahotsa siente que el modelo de la entidad local menor constituido, con centro en Itziar y abarcando el 92,5 % del término municipal, origina perjuicios a estos intereses generales, y que es necesario un modelo de entidad local menor diferente en el que los deseos de una parte de la población tengan como límite también los deseos de otra buena parte. Por ello, la modificación aprobada sitúa la superficie de la entidad local menor en un 80,9 %, y del 19,10 % para Deba, como queda recogido en el documento "Informe justificativo de la modificación de la entidad l ocal menor de Itziar".*

*Beraz, Debarren Ahotsetik eskatzen dugu toki entitate txikia aldatzeko espedientearekin jarraitzea, 2019ko martxoaren 26ko Udal Osoko Bilkuran Debarren Ahotsa eta EAJren botoekin onartu zena.*»

*Por lo tanto, desde Debarren Ahotsa solicitamos continuar con el expediente de modificación de la entidad local menor, aprobado con los votos de Debarren Ahotsa y PNV en el Pleno municipal de 26 de marzo de 2019.*»

**Gilen Garcia:** EAJk ekarpenik egin nahi du?

**Gilen Garcia:** ¿El PNV quiere hacer alguna aportación?

**Iñigo Cambronero:** Bai. Besterik gabe, behin baino gehiagotan errepikatu duguna adierazi.

**Iñigo Cambronero:** Si, Simplemente señalar lo que hemos reiterado en varias ocasiones. Si es

Egia da lurralde-aldaketa hori babestu genuela, eta esan genuen Aldundiak iritzia ematen zuenean, guk Aldundiak esandakoa beteko genuela. Ez diogu zentzu handirik ikusten iraganeko gerretan sartzeari: lurraldetasuna, aurrekontuen portzentajeak eta abar. Bada tresna bat, lankidetza-hitzarmena, Osoko Bilkura honetako indar politiko guztiek onartu eta landu duguna, eta uste dugu hori dela bide zuzena.

verdad que apoyamos esa modificación territorial, y dijimos que cuando Diputación se pronunciase, nosotros íbamos a acatar lo que Diputación dijese. No le vemos demasiado sentido a entrar en guerras del pasado, territorialidad, porcentajes de presupuestos, etc. Hay una herramienta, que es el convenio de colaboración, que todas las fuerzas políticas de este Pleno lo hemos aprobado y hemos trabajado, y creemos que esa es la vía correcta.

Tokiko entitate txikiak argi eta garbi erakutsi du kudeaketa oso positiboa izan dela, zerbitzuak hurbildu zaizkie itziartarrei, eta debarrak askatu egiten gaitu gu hurbildu ezin garen kudeaketa batetik. Izaera, arazoak eta beharrak hobeto ezagutzen dituzte, eta tresna ona dela uste dugu.

La entidad local menor ha demostrado con creces que la gestión ha sido muy positiva, se han acercado servicios a los itziartarras, y a los debarras nos libera, incluso, de una gestión a la que nosotros no nos podemos acercar. Conocen mejor la naturaleza, la problemática, las necesidades, y creemos que es una buena herramienta.

Ondorioz, guk ez dugu babestuko administrazio-prozedura honekin jarraitzea.

En consecuencia, nosotros no vamos a apoyar el seguir con este procedimiento administrativo.

**Gilen Garcia:** Itziar, zurea da hitza.

**Gilen Garcia:** Itziar, zurea da hitza.

**Itziar Irizar:** EH Bildu, bueno garaian horietan oraindik EH Bildu ez zegoen, baina, Auzo Udalaren antolaketan eta sorreran buru belarri ibili zen beste alderdi eta talde batzuetako ordezkariekin batera, 2011-2015 legegintzaldian, eta baita aurretik ere.

**Itziar Irizar:** EH Bildu, bueno, en aquellas fechas todavía no existía EH Bildu, pero estuvimos presentes en la organización y creación de la entidad local menor junto con representantes de otros partidos y grupos en la legislatura 2011-2015, y también con anterioridad.

Aurreko legegintzaldian ere, oposizioan egonda, Auzo Udalaren garapenari babesa eman genion une oro, eta legegintzaldi honetan, batez ere, heldu diogu elkar lanari, erakunde arteko dinamika hobetzeko, hitzarmena adosteko, Auzo Udaleko administrazioa eratzeko, eta abar.

En la anterior legislatura también, estando en la oposición, apoyamos en todo momento el desarrollo de la entidad local menor, y en esta legislatura, sobre todo, hemos estado trabajando juntos para mejorar la dinámica interinstitucional, acordar un convenio, configurar la administración de la entidad local menor, etc.

Gogoratu nahi dugu, auzo udalaren figura, administrazio arloan, autonomia eskaintzen diela Auzo Udala bera osatzen duten auzoetan bizi diren herritarrei, bertako ordezkarien bitartez, eta EH Bildun helburua da toki entitate txikiaren garapenean jarraitzea, bai Auzo Udalaren ordezkariekin, baita Udalbatzako alderdiekin ere. Horiek horrela, 2020ko abenduan adostu genuen hitzarmen hori osatzen eta garatzen jarraitzeko bide horri segitu nahi diogu.

